

BALOREZKO PROPOSAMENA



Gure proiektua zera da: garraiobideen erabilera errazteko aplikazio bat: **Garraionet**. Bertan autobusak noiz datozen adierazteaz gain, momentu bakoitzean non dauden jakinaraziko digu (atzerapenik egonez gero zer gertatu den esanez), baita zenbat jende duen ere. Trenetan berdin, eta beraz zein tren (eta bagoi) dauden

hutsago jakingo dugu. Gainera, bidaiak planifikatzeko aukera emango digu, gure nahi eta beharretara eraldatuz (zenbait filtro ahalko dira aplikatu, besteak beste gurgildun aukian zoazen edota duzun diru kantitate maximoa bidai hortarako): adibidez, Donostitik Bilbora joateko autobus bat eta topoa hartu behar duzula adieraziko dizu, eta gurgildun aukian bazoaz bi autobus proposatuko dizkizu, zeinak prest dauden gurgildun aukiak eramateko.

Balorezko proposamenari dagokionez, gure proiektuak **prestazio** handia du: jada funtzionamenduan dagoen zerbait (garraiobide sarea) hobetzeko balio du. Hau da, gaur egun autobus paradetako pantailetan ikusi dezakegu zenbat falta zaion autobusari iristeko. Guk, ordea, aplikazio hobe egin dugu autobusa nondik doan, zenbat jende duen eta arazorik egonez gero zein den adierazten duena. Beraz, **lana erraztea** du helburu bezela ere: garraiobidea erabiltzea izugarri erraztuko du, bidaiak planifikatuko dizu zuk ezer egin gabe. Modu hontan, lekuetara garaiz iristea erraztuko dugu, eta leku batetik bestera joateko hainbeste pentsatu behar ez izatea. Gainera, informazioa aktualizatzen joango garenez, ordutegi bereziak ere azalduko dira, festetakoak besteak beste, inor ez geratzeko kanpoan.



Pertsonalizazioa beste ezaugarri bat da, leku batetik bestera egin beharreko bidaiak pertsonalizatu ahalko baitu bakoitzak. Eta garrantzitsua: aplikazioaren **erabilerraztasuna**. Oso erraza eta intuitiboa izango da aplikazioa, edozein adineko jendeak erabili ahal izateko.